

URTEKO MEMORIA

Gizaki orok nazioarteko babesa bilatzeko duen eskubidearen alde lan egiten dugu

AURKIBIDEA

- 3** Berriz elkartzea
- 4** Alba eta Olatz gara
- 5** Nortzuk gara
- 6** 2023ko mugarriak
- 7** Harrera
- 8** Inklusioa Arreta
- 9** Ekintza Sozial Juridikoa eta
- 10** Eskubideen Defentsa
- 11** Zer egin dezakezu zuk
- 12** Kontu Argiak
- 13** Gure Aliantzak
- 14** Sareetan dihardugu
- 15** Zer ikasi genuen 2023an?

BERRIZ ELKARTZEA



Wakik ezbeharrez eta ziurgabetasunez beteriko odisea bat bizi izan zuen. Zaila da leku seguru baten bila bidean igarotako 8 urteak laburbiltzea. Bide hori Togotik abiatu zen 2016an, eta 2023ko azaroan heldu zen azkenengo geltokira, Oñatiko Larraña Etxera, Zehar-Errefuxiatuekin kudeatzen duen zentrora, hain zuzen ere.

«Togotik alde egin behar izan genuen egoera zaildu zelako, Nigerren ezagutu nuen nire bikotea eta 2018an ihesian jarraitu genuen, Libiara heldu arte. Bertan, biak atxilotu gintuzten, bi urtez. Kartzelari baten laguntzaz atera nintzen, eta hanka egitea lortu genuenean Algeria zeharkatu genuen, eta bertan lanean egon ginen, dirua irabazteko. Gero, Marokon, polizien sarekadetatik ezkatatu behar izan genuen basoan. Hamar aldiz saiatu ginen Tangerretik pateran alde egiten» kontatzen du Wakik. 2023an, Salvamento Maritimok itsasoan erreskatatu eta Kadizeko itsasaldera eraman zuen. Bertatik Bilbora bidaiatu zuen autobusez, eta astebetez kale gorrian lo egiten egon ostean, Oñatin plaza lortu zuen.

Azkenik heldu zen poza, espero ez zuenean norbaitekin elkartu baitzen. Zihoan tokira zihoala, Wakik jendeari galdetzen zion ea Ibrah ezagutzen zuten. Bere neba da Ibrah, eta Togotik alde egin zuen ere, baina Wakik baino urtebete lehenago. Nerea Maiztegi, zentroko zuzendaria, 2018an baliabidea martxan jarri zenean ezagutu zuen togoar batez gogoratu zen. «Ziurtatzeko bere arreba zela, eta ez asmo txarrak zituen beste norbait, haren jaiotze-data galdetu nion. Bazekiela ikusi nuenean, uff!» Ibrah edonon egon zitekeen, baina kasualitatez Larraña Etxean egon zen harreran.

Urte horietan guztietan zehar, Ibrah eta familia osoak Waki hilda zegoela uste zuten. «Bestea egon ez den herrialdeetan bilatu dugu elkar. Harrigarria da, hain zuzen ere, Oñatin elkartu izana, hemen harrera egin baitzidaten niri 2018an eta orain bera heldu da», azaldu du Ibrah hunkituta.



Alba Pulido: “Zehar-Errefuxiatuekin elkartean boluntario hasi nintzenean zalantza asko nituen, baina orain, urtebeteren ostean, eskerrak eman diezaieket, kontatzeko hainbeste istorio eta bihotz erresiliente eta ausartak dituzten pertsonak ezagutzeko aukera eman izanagatik. Boluntarioak elkartearen funtsezko atal bat dira; izan ere, babesa bilatzen duten pertsonak lagunduta sentitzen dira, haien maila berean gaudela sentitzen dutelako, ahizpa edo lehengusina izango bagina bezala, ez baitugu zaintzaile edo langilearen rola hartzen. Zehar-Errefuxiatuekin elkarri laguntzeko espazio bat da, elkar hezteko, babesteko, entzuteko eta ulertzeko, hitz egiteko eta ikasteko. Leku segurua da guztiontzat, beldurrik eta aurreiritzirik gabe jokatzeko dugun gizakiak garelako, hori bakarrik, pertsonak. Zehar-Errefuxiatuekin hori da, ezbehar hain handien artean arnasa hartzeko espazio bat”.

Olatz Aretzaga: “Duela 20 urte hasi nintzen CEAR-Euskadirekin kolaboratzen, gaur egun Zehar-Errefuxiatuekin. Praktika Juridikoko Eskolan ikasketak amaitzen nabilen, eta oso hurbil nengoen lan-mundura salto egiteko, abokatu gazte gisa lanean hasteko. Une hartan, zorionez, Javier Galparsoroarekin gurutzatu nintzen bidean, eta harekin batera ezagutu nuen bere migratzaileak defendatzeko grina, eta bereziki errefuxiatuak diren horien alde borrokatzekoa. Horrela hasi nintzen Atzerritarren eta Asiloaren Zuzenbidearen mundu zoragarria ezagutzen, eta ordenamendu juridikoak eskaintzen dituen tresnak erabiltzen. Hor ikusi nuen bidea arauak betetzea eta, bereziki, giza eskubideak errespetatzea eskatzeko.

20 urteren ostean, nire buruari galdetzen diodanean zergatik kolaboratzen dudan entitate honekin, ondorio bakar berera heltzen naiz beti: ez dago beste aukerarik. Izan ere, behin biztanleria migratzailean dagoen desberdinkeria sakona ezagutu duzunean, konturatzen zara premiazkoa dela gure gizartean aldaketarako eragile gisa parte hartzea. Nire kasuan, Zehar-Errefuxiatuekin zerbitzu juridikoan modu apalean egiten dut nire ekarpena. Erabateko konfiantza dut gizarte hobeak bihurtuko gaituzten aldaketak bultzatu ahal izateko elkartzen garenean pertsonok dugun boterean.

Azkenik, eta du ez horregatik garrantzi gutxiago, adierazi behar dut erakundearekin izan dudan loturari esker, hainbat pertsona ezagutuko ditut urte hauetan guztietan zehar, eta momentu onak eta txarrak bizi izan ditut haiekin. Gainera, nire bizitza profesionalean ez ezik, nire eremu pertsonalaren parte ere badira orain pertsona horietako batzuk. Eskerrik asko, beti”.

NORTZUK GARA

Zehar-Errefuxiatuekin elkartean, zaurgarritasun egoeran dauden errefuxiatuak, aberrigabeak, asiloa eskatzen dutenak eta migratzaileak babesten ditugu. Gure egitekoa babes integrala eskaintzea da, eta era berean, inklusioa eta euren eskubideen defentsa bultzatu. Euskadin egiten dugu lan, eta babes bila ari diren pertsona guztientzako inguru eroso eta segurua sortzen dugu. Urteak aurrera joan ahala, komunitate sendo eta solidarioa eraiki dugu, eta horrek ahalbidetu digu erronkei ausardiaz eta itxaropenez aurre egitea.

Egitekoa

Giza Eskubideak eta Nazioarteko babesa eta/edo bazterketa-arriskua duten desplazatu, aberrigabe eta migratuen garapen integrala defendatzea eta sustatzea.

Ikuspegia

Zehar-Errefuxiatuekin jasangarria, bidezkoa eta diskriminaziorik gabekoa izango den gizarte baterako bidean aldaketa eta eraldaketarako eragile gisa sendotuko da. Aukeraberdintasunean eta norbanakoaren eta taldearen nortasunaren errespetuan oinarritutako gizarte baterako bidean, integrazio sozial, kultural, laboral eta politikoko prozesuak sarean kudeatuz, interes-taldeen parte hartzearekin.

Balioak

Justizia - Konpromiso aktiboa - Kudeaketa arduratsua



2023 MUGARRIAK



2.546 pertsona artatu eta lagundu ditugu, leihatila bakarreko gure zerbitzuan haien egoerari eta premiei buruzko diagnostikoak eta orientabideak emanez. Zerbitzu horren bidez, hasierako elkarrizketa bat egin dugu, errefuxiatuen errealitatea ezagutzeko eta haien egoera eta premiak argitzeko.



548 pertsona hartu ditugu harreran, Bilboko pisuetan, eta Oñatiko Larraña Etxea eta Tolosako Zuloaga Txiki zentroetan.



Egoera zaugarrian zeuden **1.010** errefuxiatu, aberrigabe, eta migratzailek erabili dute gure arreta juridikoko zerbitzua.



618 pertsona lagundu ditugu haien beharrak identifikatzen eta inklusio prozesuak diseinatzen.



Bizkaiko Psikologoen Elkargo Ofizialarekin lankidetzan, "**Psikologoen Sarea**" abiarazi dugu, errefuxiatuei laguntza psikologikoa emateko, haien esperientzia traumatikoen ondorio emozionalak jorratuz.



BBK Kuna, BBK Fundazioa eta Maraka elkarteek koordinatutako **Bidelagun** ikaskuntza-komunitatean parte hartu dugu, nahi ez den bakardadea izateko arriskuan dauden pertsonen egoera hobetzeko. 18 erakunderekin batera, bakardade horiek detektatzeko eta artatzeko metodologia landu dugu.



"**Deserrotuak: Ez da klima, kapitala da**" **online ikastaroa** abiatu genuen gure campus birtual berrian. Ikastaro honek migrazio klimatikoa eta desplazamendu behartua jorratzen ditu, nazioarteko babesari, genero ikuspegiari eta giza eskubideei buruzko saioetan.



HARRERA

Gure konpromisoa harrera-programak eskaintzea da, errefuxiatuei eta migratuei etxebizitza, laguntza psikologikoa eta gizarteratzeko laguntza emateko. 2023an, **358** pertsona artatu genituen Larraña Etxean (Oñati), **142** Zuloaga Txikin (Tolosa) eta **48** Bilboko lau pisutan.

Harreran hartzen dugun pertsona bakoitzak tratu pertsonalizatua jasotzen du, bere premiak kontuan hartuta, egokitzapena eta autonomia errazteko.



Hauek izan ziren harreran hartutako pertsonen jatorrizko herrialdeak:

- Algeria
- Angola
- Boli Kosta
- Bolivia
- Brasil
- Burkina Faso
- El Salvador
- Errusia
- Etiopia
- Gabón
- Georgia
- Guinea Konakry
- Honduras
- Kamerun
- Kolonbia
- Kongoko Errepublika Demokratikoa
- Kuba
- Mali
- Maroko
- Mauritania
- Nigeria
- Nikaragua
- Paraguai
- Peru
- Ruanda
- Sahara
- Senegal
- Serbia
- Togo
- Tunisia
- Venezuela

Harreran hartutako pertsona gehienek positiboki baloratzen dute beren egonaldia, eta beren ibilbide pertsonaletan planteatutako helburuak lortu dituzte.

"Larraña Etxean izandako harrerari esker, berriro hasteko eta komunitatearen parte sentitzeko beharrezko babesa aurkitu genuen familian."

Fatima, Maroko

INKLUSIOA

Errefuxiatuen gizareratzea eta laneratzea sustatzeko hainbat jarduera eta proiektu egiten ditugu: **1.710** pertsona artatu ditugu Bizkaian, **649** Gipuzkoan eta **187** Araban. HEMEN eta Goiabe programek **239** gazte eta **216** pertsona lagundu zituzten, hurrenez hurren. Horiez gain, Arreta Psikologikoko Zerbitzua ere eman dugu. Bizkaiko Psikologia Elkargoarekin lankidetzan. Zerbitzu horrek **41** pertsonari laguntza emozionala eman zien, traumak gainditzen laguntzeko eta gizareratzea errazteko.

Horrela, ibilbide pertsonalizatuak sortzen jarraitzen dugu eta artatzen ditugun pertsona guztien autonomia eta parte-hartze aktiboa sustatzeko konpromisoa indartzen dugu.



Etorkizunera begira, gure programak indartzen eta inklusio-ekimenak hedatzen jarraituko dugu. Ingurune are inklusiboagoa eta erosoagoa sortzea da gure helburua, pertsona bakoitzak aurrera egiteko eta komunitateari laguntzeko aukera izan dezan. Errealitate aldakorretara egokitzen eta gure bazkideekin eta komunitatearekin batera lan egiten jarraituko dugu, guztiontzako etorkizun bidezkoagoa eta ekitatiboagoa eraikitzeko. Gure ustez inklusioa ez da soilik helburu bat, etengabeko konpromiso bat baizik.

"Inklusio-tailerrek lana aurkitzen lagundu zidaten, bai eta nik bizitako egoera berdinak bizi izan dituzten pertsonekin konektatzen ere. Orain seguruago sentitzen naiz nire eguneroko bizitzan".

Ahmed, Siria

LAGUNTZA JURIDIKOA

Lege-aholkularitza ematen diegu nazioarteko babeseta eta babes zibila eskatzen dutenei, bai eta errefuxiatuei eta migratuei ere, haien egoera erregularizatzeko eta haien eskubideak defendatzeko. 2023an, nazioarteko babeseko eskaera egin nahi zuten **434** pertsona artatu genituen, **162** Bizkaian, **62** Gipuzkoan eta **210** Araban.

Gasteizko bulegoetan **576** pertsonak (325 emakumek eta 251 gizonak) egindako **800** kontsultari baino gehiagori erantzun genien, Aholku Sarearen jardueraren baitan. Sare hori egoera zaugarrian dauden etorkinei atzerriartasunaren arloko aholkularitza-juridikoa emateko proiektua da.



Hauek izan ziren artatutako pertsonen jatorrizko herrialdeak:

- Kolonbia (22%)
- Venezuela (21%)
- Peru (6%)
- Maroko (5%)

Gure esku-hartze juridikoa integrala da, asilo-eskaerak izapidetzetik hasi eta aberrigabetasun-kasuak defendatzeraino.

"Jaso nuen babes juridikoa funtsezkoa izan zen nire asilo eskaeran aurrera egiteko. Zehar-Errefuxiatuekin elkarteari esker, prozesua ulertu nuen eta emandako pauso bakoitzean lagunduta sentitu nintzen"

Laila, Venezuela

EKINTZA SOZIALA ETA ESKUBIDEEN DEFENTSA

Bidezkoagoa eta inklusiboa izango den gizarte bat lortzeko bidean, aldaketa positiboan alde egiten dugu esparru politikoan eta sozialean, errefuxiatuen eta migratuen eskubideak defendatzeko ikerketen, kanpainen eta ekintzen bidez. 2023an, sarean lan egiten jarraitu genuen, beste entitateekin elkarlanean aritu ginen, eta elkarbizitzarekin eta babes komunitarioarekin lotutako hainbat ekimenetan parte hartu genuen.



2023an, **Deserrotuak II** proiektuan, kapitalak eta krisi klimatikoak eragindako desplazamendu behartuak ikertu genituen.

“Interseksionalitatea: Aniztasuna eta Asiloa” proiektuan, La vida en modo difícil : Ser una persona refugiada desde una mirada interseccional dokumental laburra ekoitzi genuen, eta hogeitabat erakunderekin diskriminazio-espazioak ingurune inklusibo bihurtzeko jarduera-proposamenak egin genituen. **“IAGORategian”** diskriminazioaren aurkako eztabaidarako eta proposamenak egiteko espazioak sortu genituen, diskriminazioaren biktimetarako Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik ezari buruzko **ERABEREAN sareko** kide gisa egiten dugun lanaren ildotik.

Arabako Bizikidetzarako Idazkaritza Teknikoekin eta Zurrumurruekin Aurkako Estrategiarekin aniztasuna eta kulturartekotasuna sustatu genituen, eta **“Bizilagunak 2023: mahai istorioak”** proiektuko kideekin gizarte-koherentsia sustatu genuen, Araban jatorri desberdinetako bizilagunekin partekatutako bazkarien bidez.

Gainera, komunitatea parte bihurtu dugu **“Ausarten Hitzaldietan”**, **“Topaketa Komunitarioetan”**, **“Truke Guneetan”** eta **“Lankidetzaren Proiektuetan”**. Gure sentsibilizazio kanpainak milaka pertsonetara heldu dira, inklusioa eta elkartasuna sustatzeko asmoz.

“Mendialdeko Kuadrillako Bizikidetzaren taldera egokitu izanak asko lagundu dit emakume migratua izateko erronkak gainditzen”.

Madeley, Peru

ZER EGIN DEZAKEZU ZUK

Errefuxiatuei, aberrigabeei eta migratuei laguntzen diegu hainbat erronkari aurre egiten: nazioarteko babeseko hitzorduak lortzen, etxebizitzarako, lanerako edo formakuntzarako sarbiderik eza borrokatzen...

Oztopo horiei aurre egiteko zure laguntza behar dugu.


- ✓ izan boluntario
- ✓ Bazkidetu zaitetz
- ✓ Egin dohaintza
- ✓ Enpresa gisa lagundu
- ✓ Antolatu zure ekitaldia
- ✓ Lortu gure produktutuak
- ✓ Utzi ondare solidarioa
- ✓ Jarrai iezaguzu sare sozialetan
- ✓ Zabal ezazu gure kausa




KONTUA ARGIAK

2023an, gure diru-sarrerak 3.343,801 eurokoak izan ziren, hainbat iturritatik etorritakoak. Gure gastuak 3.296,244 euro izan ziren, errefuxiatuei, aberrigabeei eta migratuei laguntza integrala emateko erabilitakoak. Urtero gure kontuak ikuskatzen ditugu, funtsen erabilera ona eta gargentasuna ziurtatzeko

Diru-sarrerak **3.343,801 €**:




Gastuak **3.296,244 €**:



GURE ALIANTZAK

Gure lana babesten duten eta nazioarteko babesa behar duten pertsoneri arreta emateko gure gaitasunak indartzen dituzten erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan ari gara. Aliantza horiek gure eragina handiagotzea eta osatuagoa eta eraginkorragoa izango den babesa eskaintzea ahalbidetzen digute



SAREAN EGITEN DUGU LAN

Lankidetzza aldaketa sozialerako eragilea dela sinisten dugu. Hainbat sare eta plataformatan parte hartzen dugu, baliabideak partekatzeko eta gure eragina handitzeko.

Tokiko, nazioko eta nazioarteko erakundeekin lankidetzan aritzen gara errefuxiatuen eta migratzaileen eskubideak sustatzeko, gure ekintzak eraginkorrak eta iraunkorrak izango direla ziurtatuz.



«Zehar-Errefuxiatuekin aktibo handia da bForoan, jakintza partekatzeko eta hausnarketa kolektiboa bultzatzeko beti prest dagoen erakundea da».

*Leire Ortiz de Zarate Barañano, **Bizkaia Gara***

ZER IKASI GENUEN 2023AN?



Malguak izaten eta artatzen ditugun pertsonen behar aldakorretara etengabe egokitzen ikasi dugu, gure inklusio-estrategiak hobetzeko eta haien errealitatei hobeto erantzungo dieten laguntzeko modu berriak garatzeko.



Beste erakunde batzuekin koordinazio handiagoa izatea beharrezkoa dela berresten dugu, nazioarteko babesaren erronkei eta errefuxiatuen eta migratzaileen integrazioari aurre egiteko.




Konturatu gara ezagutza sakonagoa behar dugula ingurumen-degradazioak eta sistema kapitalistak behartutako desplazamenduei buruz, kultura-aniztasunari, bizikidetzari eta asiloari buruz, diskriminazioaren aurkako tresnei buruz.



Badakigu are gehiago sustatu behar dugula atzeritar jatorriko herritarren parte-hartze aktiboa bizikidetzari eta diskriminazioari buruzko eztabaidetan.



Gure eguneroko jardunetan ikuspegi feminista interseksionalean sakontzen jarraitu behar dugu, eta feminismo dekolonialean trebatzea lehenetsi behar dugu, gure estrategia guztiak indartzeko.





errefuxiatuekin

Gizaki orok nazioarteko babesa bilatzeko duen eskubidearen alde lan egiten dugu

Arreta bulegoa:
Baiona Kalea, 1-3
48012, Bilbo (Sarrera Urizar Plazatik)
Tel: 944 059 566

Intzidentzia eta kudeaketako
bulegoa:
Kristo kalea, 9 Bis, 5. solairua,
48007 Bilbo
Tel: 944 059 566

Arreta eta intzidentziako
bulegoa:
Ferrocarri kalea, 8
01006, Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 880 533

Arreta bulegoa:
Amezketarrak kalea, 3
20015, Donostia
Tel: 747 493 508

Oñatiko Larraña Etxea zentroa
943 009 049

Tolosako Zuloaga Txiki zentroa
688 64 25 38

www.zehar.eus

info@zehar.eus

